

SELEKZIOA. Ofizialtasuna lortzeko kirolari eta zale guztien laguntza behar dela nabarmendu zuten atzoko kalejiran



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Ehunka lagun bildu ziren atzo ESAITek antolatutako euskal selekzioaren aldeko kalejira koloretsuan.

Euskal selekzioaren aldeko deia egin dute ehunka lagunek Iruñean

Mikel Uzkudun (ESAIT): «Bada garaia nazioarteko federazioari gure laguntzak kentzeko»

Asier Azpilikueta | IRUÑEA

Iruñean, ehunka lagun bildu ziren atzo ESAITek antolatutako euskal selekzioaren aldeko kalejiran. Berriozarko joaldunak aitzinetik eta dultzainaren soinua lagun, Labrit pilotalekutik abiatu ziren manifestariak arratsaldeko seietan. Antolatzaileek Labrit kalejiraren abiapuntu aukeratu zuten abuztuan Iruñean jokatu duten munduko pilota txapelketaren egoitza nagusia delako. Euskal selekzioak ezin izanen du mundialetan parte hartu; hortik manifestazioaren leloa: *Euskal selekzioa eskubidea. Iruñea da bidea.*

Kalejira Zabalguneko zenbait karriketarik pasatu eta gero, Sarasate pasealekura iritsi zen. Bertan, Estitxu Arozena, Julen Zelaieta eta Nerea Bruño bertsolariak bina bertso bota eta gero, Bea Razkin Sakanako tiralariak hainbat kirolarik idatzirik agiria irakurri zuen.

Espainia edota Frantziarekin parte hartzerantz derrigortuta

Razkinek gogorarazi zuen berri ere ez zaiola Euskal Herriari aitortu «selekzio propioa izateko duen eskubide kolektiboa». «Euskal kirolariok nazioarteko txapelketa ofizialetan ezin dugu parte hartu euskal selekzioarekin eta, gainera, diziplina federatiboa dela eta, derrigortuta gaude txapelketa horietan par-



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Labrit frontoitik abiatu ziren Euskal Selekzioa eskubidea. Iruñea da bidea lemapean.

MUNDUKO TXAPELKETA

Kalejira Labrit frontoitik abiatu zen abuztuan eginen den txapelketako egoitza nagusia delako

te hartzekotan gure herriak bereak sentitzen ez dituen kolorekin egitera, hau da, Espainia edota Frantziakoekin», irakurri zuen.

«Euskal kirolariak garenez, euskal nazioaren kolorekin eta

tean egun ametsa besterik ez dena ahalik eta azkarren errealtate bihurtzen dugun».

Razkin tiralariaren ondotik, ESAITeko lehendakari Mikel Uzkudunek hartu zuen hitza. Uzkudunek argi utzi zuen atzokoan ez zirela kasualitatez Iruñean, «Euskal Herriaren bihotzean» bildu. «Izan ere, hemen Iruñean, munduko euskal pilota txapelketa jokatu da abuztuan», esan zuen. «Eta berriz ere, zoritxarrez —miraririk ez bada, mirarietan sinesten badugu bederen—, ez da euskal selekzioari izango, ez gara herri bezala ordezkatuak izango».

«Nazioarteko federazioa alde batera uzteko garaia da»

Uzkudunen hitzetan, Espainiak eta Frantziak, oraingoan euren pilota federazioen bidez, euskal herritarrek zilegitasun osoz duten eskubidea ukatu egin diete berriz ere. «Horregatik, uste dugu heldu dela garaia euskaldunok euskal pilota gure erara antolatzeko, inori erreguka aritu gabe», adierazi zuen Uzkudunek gogor. «Heldu da garaia nazioarteko federazio hori alde batera utzi eta gure aldetik bidea eraikitzeko. Heldu da garaia, behingoz, nazioarteko federazio horri gure laguntzak kendu eta gurea eraikitzen erabiltzeko. Bidea luzea izango da, eta oztopoz bete, baina egin beharrekoa».

ESANAK

PATXI MARTA

(Wu-shu kirolaria)

«Euskal kirolari guztiek izan beharko lukete Euskal Herria ordezkatzeko guk dugun pribilegioa»

«Koherentziaz, Espainiako eta Frantziako selekzioei intsumiso izan behar dugu; gurea exijitu»

«Profesionalak ez direnak izan behar ditugu buruan, kopuruz gehiago baitira»

JOKIN RAZKIN

(Sakanako sokatira taldea)

«Euskal selekzioen ofizialtasuna lortzeko ideia guztiak garbi eduki behar dira eta ekintza asko egin»

KARMELE AIERBE

(Batasuna)

«Mundiala hemen izan eta pilota bertakoa izanik, iraingarria da selekzioak parte hartzerik ez izatea»

«Eskoziak bezalako herrialdeek selekzioa dute Estatu ez diren arren. Zergatik ez Euskal Herriak?»

KOLDO AMEZKETA

(Eusko Alkartasuna)

«Aldarrikapen zabalago baten parte arrunt garrantzitsua da euskal selekzioaren aldarrikapena»

«Kirolak garrantzi oso handia du edozein gizartetan, kirolari eta ikusle anitz baitago, baita gurean ere»